


BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, abenduak 5



Musika akademiatik kalera

Wonder Brass

Autopulmans Araba S.L.

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

AUTOBUSAK

Telefonoa: 76 55 70

Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidaia, despedida, lantegi, eskola...

ESKA EZAZU AURREKONTUA!!



ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ERROTALDE JAUREGIA
3570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ERDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Redakzioa:Eduardo Mendibil
Xel Elkoroberezibar
Zuber Azkondo**Akretazioa:**

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Eneko Azkarate

Argipidetzak:

Erika Elortza

Bestuen zuzenketak:

Eneko Plazaola

Eneko Laskurain

Eneko Labaien

Redakzio kontseilua:

Erika Elortza

Eneko Angel Elkoroberezibar

Eneko Labaien

Omikiak:

Eneko Rodriguez

Eneko Ortega & Jon Alvarez

Eneko Ugalde

Eneko Azkarate

Argibideak:

Eneko Xangorri taldea

Argitara:

200 ale.

Argitaraileak:

Eneko Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Argitaraileak:

\$ 50/91

ISSN:

130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain
aritzen aldizkarian adierazitako
iruzten eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ITSASO AZKARATE

Taun-Tauneko kidea

- Nolako harrera izan du "Ubu babel" zuen azkeneko lanak?

- Oso ona. Bergaran urriaren 20an estreinatu genuenetik 10 bat emanaldi eskeini ditugu Euskal Herri osoan (Bilbon, Gasteizen, Getxon Irunen, etabar) eta publiko zein kritikaren aldetik harrera oso ona izan da. Kritika onak jaso ditugu, lan oso interesgarria iruditu zaio gehiengoari eta pozik gaude.

- Bergaran aretoa bete eta jende asko geratu zen obra ikusteke. Noiz izango dugu berriaz ikusteko aukera?

- Oraindik ez dakigu, fetxak aztertzen ari gara baina baliteke apirila aldera Bergaran izango den txotxongiloen jaialdira arte itxoitea. Orain



hasiko gara jaialdi hori prestatzen eta ziurrenik emanaldiren bat emango dugu orduan.

- Euskal Herrikanpo irtetzeko asmoa?

- Martxoan Madrilera eramango dugu lan berria eta bien bitartean hemen jarraituko dugu. Hurrengo emanaldiak Azpeitian eta Antzuolan izango dira.

"Publiko zen kritikaren aldetik harrera ona jaso du 'Ubu babel' gure azken lanak"

I T U R R I O N E T I K

Bizar-Zuri aurten ere txakur leran helduko da abenduaren 30ean

Orain dela hiru urte bezala, aurten ere Bizar-Zuri txakurrek tiraturiko leran helduko da Bergarara, abenduaren 30ean, 7etan. Axen Garitanoren txakurrek bi karrotan ekarriko dituzte Bizar-Zuri eta bere laguntzaileak. Orain dela hiru urte ere txakur leran etorri zen Bizar-Zuri eta bergararrek ondo ikusteko aukera izan dezaten, orduan baino ibilbide luzeagoa egingo du herriko kaleetan. Kultur Etxetik, Bideberrira abiatuko da, handik Ibargarai kalera, jarraian herri erditik buelta osoa emango du, Plazan geldiduna egingez eta ibilbidea Kultur Etxean amaituz. Bestalde, urtarrilaren 5ean ohizko Erregeen Kabalgata izango da.

E S A N
D U T E

"1997 euskararen erabilera urtea izango da. Zertan igarriko den?"

Antzuola eta Bergarako egitasmo pilotoa ezin ahaztu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egindako lanari esker, egitasmo pilotu hau Gipuzkoako udalerrietara hedatuko da"

JOSUNE ARIZTONDO

Hizkuntz Politikako Zuzendari Nagusia ARGIA

"Erakusketan errealitatearekin daukagun harremana planteatu nahi izan dut. Gure inguruko gauzengatik gero eta tarte gehiago uzten dugu; gero eta konformeago azaltzen gara komunikabideek ematen diguten ikuspegiarekin eta, era berean, gure inguruan dagoenari gero eta denbora gutxiago eskeintzen diogu. Beraz, kanpoan dagoena eta perzibitzen dugunaren arteko distantzia gero eta haundiagoa da"

JESUS MARI LAZKANO

Margolaria EGIN

**TORMENTA BLANCA**

Eguena: 22:30.

Eguakitza: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 11:30 (Matinala).

**MULHOLLAND FALLS****La brigada del sombrero**

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astlehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**DONDE RESIDE EL AMOR**

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Zinea

▼▼ **Ridley Scott** britaniar zuzendari ospetsuak (*Blade Runner*, *Thelma & Louise*) benetako gertakizunetan oinarritutako filmea egin du oraingoan. *Albatros* itsasuntzian, *Sheldon* kapitainaren (**Jeff Bridges**) eskutik, gazte talde bat nabigatzearen sekretuak ikasten ari da eta, tartean, ekaitz zuriari aurre egin beharko diote...

▼▼ **Lee Tamahori** zuzendariaren filme honek kritika onak jaso zituen aurtengo Donostiako Zinemaldian. 1954 urteko Los Angeles hirian, *Max Hoover* (**Nick Nolte**) sonbreruen brigadako burua dugu. *Hoover*ek eta bere laguntzaileek euren lege propioak inposatzen dituzte baina euren boterea arriskuan egongo da. **Chaz Palminteri** eta **Melanie Griffith** aktoreekin.

▼▼ *Finn* gaztea (**Winona Ryder**) Berkeleyko Unibertsitatean graduatu berri da eta orain, udan, bere tesia amaitu beharko du bere amonak eta bere izebak Californian duten etxean. Era berean, bere gurasoen esperientzia dela eta, zalantzak dauzka ezkontzaren aurrean. Horrela, emakume talde baten gomendioak primeran etorriko zaizkio...

Deiak

▼ **1968an** jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitako enafaria abenduaren 14an. Izen-ematea 76 03 72 (Nerea Lazpiur, arratsalde) eta 76, 53 12 (Etxagi) telefonoetan egin daiteke.

▼ **Manu Muniategi**ren marrazki erakusketa Donostiako DV arte galerian ikusgai abenduaren 15era arte.

▼ **Juan Jose Altunaren** margotze erakusketa Arrasateko Harresi artean (Iturriotz, 35) abenduaren 13tik urtarrilaren 7ra bitartean.

▼ **Espeleolojia** ihardunaldiak abenduaren 7tik 8ra Arantzazun Euskal Herriko 16 talde gonbidatu dira.

Ogia▼ **Eguakitza 6:** Mizpildi.▼ **Domeka 8:** Ogizun.**FARMAZIAK**▼ **Eguena 5:** Mozos.▼ **Eguakitza 6:** Camacho.▼ **Zapatua 7:** Puy.▼ **Domeka 8:** Puy.▼ **Astlehena 9:** Guallar.▼ **Martitzena 10:** Estella.▼ **Eguaztena 11:** Mozos.▼ **Eguena 12:** Camacho.**Kizkur****ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**ETXAGI
JATETXEA**AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

LARREA**TABERNA**Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Plumillazko marrazkiak

Javier Centenoren lumatxoz egindako lanak Kultur Etxean


Francisco Javier Centeno bergararraren plumilla lanen erakusketa zabalik izango da Kultur Etxean domekara arte. Centenok aurten ekin dio bere lanak jendearean erakusteari eta oraingo hau bere hirugarren erakusketa da.

- Nola hasi zinen lumatxoz marrazkiak egiten?

- Txiki txikitatik izan dut marrazteko afizioa, marrazkia landu izan dut beti. Neure kabuz ikasi dut gainera, autodidakta naizela esan dezaket, 13 urterekin hilabete batez egon nintzen Mari Paz Alustizarekin margolaritza praktiketan. Hortik aurrera nire kontura ibili naiz eta marraztea hobbya da niretzat.

- Monumentuak eta paisaiak lantzen dituzu nagusiki.

- Bai, Euskadiko monumentuak eta paisaiak ez dira behar beste landu izan nire ustez eta daukagun patrimonio hori isladatu nahi izan dut nire lanetan. Erretratua, berriz, ez dut hainbeste lantzen. Beti esaten dut erretratu bat nahi duenak joateko argazkilari batengana. Ha-



"Txikitatik izan dut marrazkiak egiteko zaletasuna".

sieran beti gustora eta oso pozik daudela esaten dizute baina berehala akatsak ateratzen hasten dira eta erretratua erdi-oparitu beharrean aurkitzen zara. Jendeak ez du apreziatzen lumatxoz egindako marrazkiek eskatzen duten lana.

- Hala ere, hainbat politikoren erretratuak egin dituzu erakusketa honetarako...

- Bai, erakusketa honetarako zenbait politikoren

erretratuak egitea interesgarria izango litzatekeela iruditu zitzaidan, beti ere gaurkotasuna dutenak. Eusko Jaurlaritzara joan, politikoen erretratuak eta dokumentazioa eskatu eta, argazki ezberdinak kontrastatu, erretratuak egin nituen. Erakusketan Arzalluz, Mayor Oreja, Ardanza, Garaikoetxea eta Jauregiren erretratuak ikus daitezke.

- Eta zein da gehien kostatu zaizuna?

"Erakusketan, besteak beste, Arzalluz, Mayor Oreja eta Ardanzaren erretratuak daude"

- Inor haserretu nahi barik, Arzalluz beharbada, *mala letxe* aurpegia dauka eta (barre). Ez, denak nahiko gustora egin ditut, ez da aparteko arazorik izan. Beharbada Jauregirekin izan dut arazo gehien, fisionomia nahiko arrunta duelako eta nahiko zaila zelako aurpegiarak kaptatzea. Dena den, nuen materialarekin ezin da miraririk eskatu.

- Nola definituko zenituzke zure lanak?

- Konposizioak egitea gustatzen zait. Estilo propioa daukat eta nire lanei ikutu pertsonala ematen saiatzen naiz. Azken batean, koadro batean gauza ezberdinak erakusten ditut; turistentzako postalen antzera, toki bateko hiruzpalau elementu konbinatzea gustatzen zait.


- Harrera ona al daukate plumilla lanek?

- Bai, badauzkat enkarigu batzuk eta gustora egin ditut, hobby bezala. Eta esan behar dut lumatxoz marraztea oleo edo akuarelarekin marraztea baino askoz ere nekezagoa dela. Beste estilo batzuk ere lantzen ditut eta plumilla menderatzea oso nekeza da, borroi txiki batek koadroa apur dezake.

BERGARA
Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Errotabarriko Paulori

Errotabarriko Paulo: Zuk idatzirik kartak aho zabalik laga gaitu bertan adierazten duzun "jakinduriagatik". Berrigararen irakurritako notizia batez hasten duzu zure karta, eta bertan irakurritakoa izan da itxura denez zure iritzia guztiori azaltzera bultzatu zaituena. Herri Batasuna Udal batzarrean AHTren aurka azaldu zela diozu eta ondoren Angiozarrenko Batzarrak bat egin zuela proposamen horrekin. Jakin ezazu Batzar honek ez duela inoren proposamenekin bat egin, izan ere bertan iritzi guztietako jendea biltzen baita, iradokizunak egitea besterik ez dugu egin orain arte gai horri buruz, hori bai, Bergarako Udalarari bidali zitzaion bertan jasotako iritzia Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailerari igorri zezan.

Batzar honen eginbeharra ez da partidu batek edo besteak eduki dezakeen iritzia bultzatzea, kontseilu irekian hartutako erabakiak Udalaren jakinean ipintzea baino eta Udalarari erantzunkizuna eskatzea noski.

Zuk mutikotan entzundakoak guk ere entzun ditugu gure gaztaroen eta oraingo gazteek ere pilpolean dute eztabaida hau: Angiozartik trena pasatuko da!. Baina zuk, azken 60 urtetan Donostian bizi izanik, behar bada gauzak era "zabalago" batean ikusten dituzu besteari modernitatearen ezagarrak ukatuz. Barkatu, baina Angiozarrek bizi dituen arazoetan kezkatua bazaude, zuzendu zaitez zuzenean herrira, eta gustoz emango dizugu gure kezken berri: Etxebizitzak, kaleak, baserrien egoera, komunikazioak,... zuk alde egin zenuenean herri honek 640 biztanle zituen eta orain erdia bes-

terik ez. Bertan bizitzea nahi dugunok bertako bizi-baldintzak ahal eta erosoan izan daitezten ahalegintzen gara lanean eta uste dugu tren bat, Euskal Herrirako ona izanik guretzat ere ona izan beharko lukeela, eta oraingoz ipini nahi dutenak gure ingurua ondatzeaz gain zu Donostiatik Bilbora 20 minutuan eruangoz zaitu baino inoiz ez duzu edukiko aukerarik Angiozarren gelditzeko.

ANGIOZAR BAILARAKO BATZARRA

Eman Euskarari berea

Honezkero zuetako askok seguraski ikusiko zenituzten Bergarako kaleetan zehar eskutitz honen izenburu bereko kartelak, "Eman euskarari berea" diotenak alegia. Bertan hainbat eta hainbat datu edota esanera azaltzen dira, euskararen gaur egungo egoeraren gainekoak denak ere. Ez gara datuok errepikatzen hasiko ezagutzen ez dituenak ia edozein egunkaritan aurkituko dituzte (baita joan den asteko Berrigararen *Beraiek diñoe* atalean ere), baina bai eskatutako dizuegu kalean zoaztenean eta horrelakoren bat parean tokatutakoan, apur batean gelditu eta esaten denari buruzko erreflexio txiki bat egin dezazuela. Ez ezazue, dena dela beste munduko gauzarik espero, ez dago-eta txundituta lagako zaituzten esaldirik; bai oster, egia galantak.

Diru asko gastatzen ari gara -azken finean denona baita- euskara lehengo parera eta arlo askotan lehen baino askoz ere gora-gora eraman nahian. Jende askok esfortzu handia egin du eta egiten dihardu oraindiko

ere (egin beharko luketenak ere tamalez mordo), baina horrek guztiak ez du ezertarako balio izango euskaldunok geuk geure hizkuntzaren eskubideak defendatu eta aldarrikatzen ez baditugu. Aldarrikapen hau esparru guztietara zabaltzen ahalegindu behar dugu gainera (kalera, ikastetxeetara, administrazioa, ertzainetara...). Ondotxo dugu ez dela eroso, batzuetan gu geure ohituago gaudelako zeregin askotan gazte-leraz jarduten: bestetan, arazoak ere sol daitezkeelako, Bizkaiko hainbat epategitar gertatu berri dena ikusi besterik ez dago baina beste biderik ez dago. Gaur egun legeak euskarari aitortzen dizkion eskubideak inoiz gauzatutako badira, derrigorrezkoak dira hasierako "sufirimendu" hauek. Horretarako, hain zuzen, antolatu de EKBk (Euskal Kulturaren Batzarrea) "Eman euskarari berea" kanpaina, egunero-egunero gure hizkuntzak jasaten duen gutxiespenaren kontrako deia darra egiteko, Euskal Herriaren azken muturreraino iritsi behar lukeen deia darra.

Kanpainari hilaren 14an Bilbon egingo den manifestaldiarekin emango zaio amaiera, geure esku dago ekitaldi hori amaiera ez izatea.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIKO LANGILEAK

Tiira biraka



“Eman euskarari berea” kanpaina

“Eman euskarari berea” kanpainaren barruan, Juan Mari Mendizabal EKBko ordezkariak hitzaldia emango du martitzenean, hilak 10, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Bestalde, datorren zapatuan, abenduak 14, manifestazioa izango da Bilbon. Autobus txartelak AEKn, Udal Euskaltegian edo Jardunen.

Kapirixo

Eguenean, hilak 12, Kapirixo Elkartean IV. Biltzar Orokorra ospatuko da 7etan UNEDeko 3-4 gelan. Jarraian, 8etan, Alberto Santana historia irakasleak bailara honetan agertzen diren zurezko elizei buruzko hitzaldia emango du.



Gripearen kontrako txertoa hartu arren, gaitza hartu daiteke. ARTXIBOA.

Osasun zentrua gainezka gripe epidemia dela eta

Gripe epidemia gogorra antzeman da egunotan herrian. Osasun Zentroan ohi baino kontsulta gehiago jasotzen ari dira eta bertako medikuek lanez gainezka omen daude. Osasun Zentroan lan egiten duten hainbat medikuek azaldu digunez, “ambulatorioa topera daukagu azken asteetan eta horrez gain etxeetara egiten ditugun bisitak nabarmen ugaltu dira egunotan”.

Bataz beste, mediku bakoitzak (medikuntza orokorreko sei mediku

eta pediatriako beste bi ari dira lanean Abulatorioan), gripearri dagokionez, 30 kasu atenditu behar izan ditu aste honetan. Gripearen sintomak, besteak beste, honako hauek dira: sukarra, botagurea, artikulazioetako mina, faringitisa edo tripetako arazoak.

Epidemia honen arrazoia eguraldi aldaketan egon daiteke. “Ez dakigu zehatz mehatz epidemiarren jatorria baina kontajio bidez zabaltzen ari dela esango genuke. Eguraldia asko aldatzen ari

da eta horrek jendearen defentsak jeitsi egiten ditu, bai pertsona helduetan eta bai gazteetan ere eta, beraz, ez dute defentsarik birusaren aurrean. Honelako aldaketek azken urteetan gripea ekarri dute baina aurtengo epidemia aurreko urteetako baino gogorragoa dela esango nuke”.

Gripearen prebenitzeko kontajioa ebitatzea (batez ere ikastetxeetan), tenperatura aldaketekin kontuz ibiltzea edo C bitamina duten elikagaiak hartzea gomendatzen da.

HILDAKOAK

- Antonio Elgarresta Gallastegi
Azaroak 27, 59 urte.
- Jose Maria Uribesalgo Bengoa
Azaroak 27, 63 urte.
- Jose Gantxegi Barrutia
Azaroak 29.
- Maria Antonia Martin Lopez
Abenduak 2, 63 urte.

JAIOTAKOAK

- Asier Garcia Irasuegi
Azaroak 25.
- Maitane Aranzabal Eskibel
Azaroak 26.
- Xabier Diaz De Pedro
Azaroak 30.

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



Aranzadi Ikastolan ibilitako en afaria

1975ean jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibili zirenek bazkaria egingo dute abenduaren 28an Antxonin jatetxean. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin bertan egin beharko da abenduaren 23a baino lehen.

Ski eta mendi karneten berriztea martxan

Gorla Alpino eta Pol-Pol mendizale taldeek dei egiten die bere bazkideei ski eta mendiko federatu karnetak berrizteko. Pol-Poleko bulegoa astelehenetik eguenera izango da zabalik, 19:00etatik 20:30etara. Ordainketa eskuz egingo da.

1934an jaiotako en bazkaria hilaren 15ean

1934an jaiotako bergararrek (1955eko kintoak) euren anaiarteko eguna ospatuko dute abenduaren 15ean. 11:45etan meza izango da Mizpirualdeko kapilan eta 14:45etan bazkaria Antxonin. Bazkarirako txartelak Antxonin 2.000 pezetaren truke.

Senideak eta Giza Eskubideen Eguna

Martitzenean, hilak 10, ospatuko den Giza Eskubideen Eguna dela eta, Senideak-ek enkartelada egingo du Plazan 19:30etatik aurrera, presoen giza eskubideak errespetatzea eskatzeko.

Aranzabal Lagunartea

Aranzabal Lagunarteko kideek Santanderrera joango dira domekan. Bazkideek 1.500 eta besteek 3.000 pezeta ordaindu beharko dute (autobusa eta sarrera).



Aurki amaituko dituzte Irala zinea botatzeko lanak.

Abenduaren 16rako aurkeztu beharko da Iralako proiektua

Baliteke, besteak beste, apartahotela jartzea

Espectaculos Bergara S.A. enpresak abenduaren 16rako aurkeztu beharko du lehengo Irala zinea aretoaren lursaileko proiektua. Irala zinea botatzeko lanak urriaren hasieran hasi ziren eta datozen asteetan amaituko dira lan horiek. Jose Mari Irizar Espectaculos Bergarako ordezkariaren hitzetan, "botatze-lanekin ez da arazorik egon eta bertako bizilagunentzat ere ez da molestiarik izan orain arte. Kontu haundiz egiten ari dira lan horiek eta horregatik obizkoa baino egun gehiago behar izango dira botatzeko lanak amaitzeko. Hormigoia eta burdina esate baterako diamantezko disko batekin moztzen ari dira. Alde horretatik oso pozik gaude egiten ari diren lanekin".

Lursailaren urbanizazio proiektua, esan bezala, abenduaren 16rako aurkeztu beharko dute Udaletxean. Jose Mari Irizarrek azaldu digunez, "proiektu hori aztertzen ari gara orain, herriko zona hornibizia eman nahi diogu eta horretarako baliteke garajeak eta zona komertzial bat jartzea eta goialdean, berriz, bulegoak joan daitezke. Baina oraindik proiektua amaitzeko dago eta ezin da gauza haundirik aurreratu".

Bertan egingo den eraikuntzak lehengo Irala zinea aretoak zuen altura berdina izango du seguruen proiektua oraindik bukatzeke dagoen arren. Iralako lursailaren apartahotela jartzeko hirigintza kontsulta aurkeztu da Udaletxean.



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

YAZKI
UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkalea, 29 BERGARA

Eskaparate lehiaketa

Herriko 23 dendak hartuko dute parte Udalak antolatutako eskaparate lehiaketaren seigarren edizioan. Eskaparateak abenduaren 6tik 18ra egongo dira ikusgai eta aurreko edizioetan bezala, epaimahaiak, besteak beste, imajinazioa, orijinaltasuna, iragarpenaren eraginkortasuna edo kalitatea izango ditu kontutan. Aurten, Udalak banatutako sariez gain (60.000, 30.000 eta 15.000 lehen hirurentzat), Bedelkar herriko dendarien elkarteak



sari berezia emango du jendearen artean egindako bozketan garaile irtetzen den eskaparatearentzat. Nobedade bezala, sari banaketa abenduaren 21ean Frontoian izango den Gabonetako Kontzertuan egingo da. Bestalde, Gabonetako argiak abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra bitartean piztuko dira herriko lau sarreratan, San Martin plazan, Barrenkalean, San Pedron, Bidekurutzetan, Arrurriagan, Artekalean, Osintxun, Angiozarren, Elorregin, Uberan eta Elosun.

■ **Gaztainerre eta sagardo ederrak**

Domeka arratsaldean, **Jardunen eskutik, Gaztainerre jaia** izan zen San Martin plazan. Jardunek kale giroa alaitu eta antzinako ohiturak berreskuratu asmoz, danbolinean erretako 35 kilo gaztaina eta 50 bat sagardo botila banatu zituen domekan eta giroa primerakoa izan zen. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, herritar ugari hurbildu zen bertara. Jarduneko trikiti eskolako ikasleek eta ostiral iluntzetan



Kartzelan entsaiatzen duen kantu taldeak giroa alaitu zuten. Jardunen ideiarekin arrakasta ikusirik, datorren urtean gehiago...

Kirol politikari buruzko topaketak Arrasaten

Mankomunitateak eta udal kirol zerbitzuek antolatuta, Deba Garaiko Kirol Politikari buruzko IV. Topaketak izango dira Arrasateko Monterron jauregian abenduaren 11n eta 13an. Argibideak, Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan edota 77 91 67 telefonoan.

Musika Eskolako bideoa

Bergarako Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoaren X. urteurrena ospatzeko Pazkuetan egin zen kontzertuaren bideoa salgai dago Kultur Etxean. Bideoan, besteak beste, "The lion king" eta Orkestaren errepertorioaren selekzio bat jasotzen da. Bideoa 1.300 pezetaren truke eskura daiteke.

Pertxa elkartearen afaria

Pertxako bazkideek Jesus Mari Eguren presidente ohiari eta zuzendaritza batzordean kolaboratzaile izan dituen beste kideei omenaldia eskeiniko diete abenduaren 7an, afaldu aurretik. Bestalde, elkartearen inguruko argazki erakusketa ikusgai izango da abenduan zehar.

Karnabaletako Kartel lehiaketa

Udalak deitutako Aratuztetako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitzen da. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, kolore eta teknika libre erabili ahal izango dute; kartelaren neurria 50 x 35 zentimetrokoa izango da eta derrigorrez "Bergarako Aratuzteak. 1997" testua jarri beharko da.

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
 Simon Arrieta, 3

BEHEKO TABERNA
 Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
 ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

iletxo
 ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
 Fleming Doktoorea, 7 BERGARA
 ☎ 76 53 15

Estetika

Aknea

- Noiz agertzen da?

- *Foliculo pilosebaceo* delakoaren haunditzea (ilea eta grasa elkartzen dira) ematen denean agertzen da aknea eta gaisotasun autolimitatua da, hau da, agertzen den bezala desagertzen da. 12 urtetik 25 urtera bitarteko biztanlegoaren %85ari afektatzen dio baina %20ak bakarrik behar izaten du tratamendua jasotzea, kasu larrietan orbainak izateko arriskua dago eta.

- Zein da aknearen jatorria?

- Hainbat faktore daude baina nagusienak bi dira: batetik hormonalak (pubertatean agertzen da aknea, androgenoek glandula sebacea horren estimulazioa ekartzen dutelako) eta bestetik glandula horren infekzioa ematen da *Propionibacterium acnes* deituriko germenaren eraginez. Lehen, dietak aknearen agerpean eragina zuela eta horregatik txorizoa, txokolata eta horrelakoak hartzea txarra zela esaten baina gaur egun aknearengan eraginik ez

dutela konprobatu da.

- Non agertzen da aknea?

- Aurpegian, bularrean eta sorbaldan. Lesio poliformeak dira (itxura desberdinekoak): *comedones* deiturikoak (puntu beltzak) *papulas* izenekoeekin (puntu gorriak) batera; pustulak (puntu gorriak puntatxo zuriarekin), kisteak edo orbainak.



CRISTINA GARCIA
(Dermatologoa)

- Beti ere gaztaroan agertzen al da?

- Normalean bai, baina badira helduetan agertzen diren akne mota batzuk. Ez dira aktibitate hormonalak sortutako akneak izaten, bestelako jatorria daukate: medi-

kamentuak (kortikoideak, hormonak, antiepileptikoak edo tuberkulosiaren kontrako drogak), kosmetikoak, akne neonatala izenekoa (jaioberritan agertzen dena) eta, azkenik, eguzkiaren eraginez sortzen dena. Sintomak diferenteak dira.

- Zein da aknearen tratamendua?

- Akne graduaren arabera bi tratamendu mota bereiztu daitezke: topikoa (kremak hartzea) eta sistemikoa (pastilak). Topikoa, benzoilo peroxidoa, azido retinoikoa, azido azelaikoa edo antibiotiko topikoa (eritromicina %2an edo clindamicina) har daitezke. Tratamendu sistemikoa, berriz, ahotik hartzen diren antibiotikoak (tetraciclina da ezagunena), tratamendu hormonalak (sustantzia antiandrogenikoak hartuz, beti ere estrogeno bati lotuak, seboaren produkzioa jesiteko) eta, azkenik, retinoideak). Azken hau akne larrietan erabiltzen da, eta haurdun dauden emakumeen kasuan dermatologo batek jarraitu beharko du tratamendua.

- Tratamenduak eraginkorrak al dira?

- Denboraz hartuta bai. Ez dira tratamendu azkarrak. Konstantzia behar beharrezkoa da eta tratamendua garaiz hastea ere bai.

“Akneak 12 urtetik 25 urtera bitarteko biztanlegoaren %85ari afektatzen dio”



Normalean aknea pubertatean agertzen da. ARTXIBOA

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lantzeria

Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka, euskaltzaleen eta euskal kulturaren topagune izan da azken hamarkadetan. Liburu eta disko argitaletxeek, sasoi honetarako prest izaten dituzte azken nobedadeak. Aurtengoa XXXI. edizioa izango da eta 15.133 liburu eta 1.144 disko erakutsiko dira, horietatik 228 liburu eta 48 disko berriak izango dira. Bestalde, aurten, Bergarak ordezkaritza izango du Durangoko azokan. Aurkeztu berri den Ikerlan Saila izeneko bederatzita liburutako bildumaz gain, orain arte Udalak argitaratu dituen beste hainbat liburu azokan ikusgai eta salgai izango dira, horretarako Udalak prestatu duen postu berezi batean.

Aurten ere milaka lagun bilduko dira Durangoko azokan.



EDURNE KOCH

Durangoko azokan

Bergarako liburuak Durangon izango dira

Deba Haraneko historiaurrea

Xabier Larrañaga.
Ikerlan Saila. (1991).
1. alea. 148 orrialde.
2.000 pta. Euskaraz.

Deba haraneko historiaurrean murgilketa sakona egiten du, Euskal Herriaren historiaurrea erreferentzi puntu bezala izanda. Jose Migel Barandiaranek, Telesforo Aranzadik eta E. Egurennek,

Deba haranerako egindako ikerlanari jarraipen zehatza egiteaz gain, terminoen esanahia arkeologikoki adierazten duen hiztegia aurkituko dugu.

Orduko gizakiak erabilitako tresnak, materialak eta tradizio munduarekin zerikusia duen guztiak, aipamen berezia izan du.

Leienda, istorio eta elezaharren aipamenak eginez, tradizio hori bilduzen saiatu da autorea.

Bergara: Hiria erdi aroan

Amaia Basterretxea.
Ikerlan Saila. (1991).
2. alea. 168 orrialde.
2.000 pta. Euskaraz.

Bergarak, erdi aroan, hirigintzaren aldetik izandako bilakaera ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen digu ikerlan honek.

Hiriari dagokionez, hastapenak eta hiri mor-


fologia aipatzen dira, besteak beste. Gizarte arloan, hiriko eta inguruko herrietako biztanleria ezberdintzeaz gain, gizarteko gatazkak ere aipagai dira liburuan zehar.

Horrez gain, garaiko herri ekonomia nagusiak eta hiriko industrigintza eta komertzioak izandako gorabeherak ekarri zituzten ondorioak ere kontatzen digu Amaia Basterretxea, liburuaren azken atalean.

Historia social de Bergara en su época preindustrial

Juan Madariaga. Ikerlan Saila. (1991). 3. alea. 152 orrialde. 2.000 pta. Gaztelerez.

Aintzinako Erregimeneko gizarte, pentsamolde eta arazoan ikuspegia. Talde sozialak, gizarte tradizionalaren ezauzgarriak eta garaian izandako gatazkei buruzko ikerlana da.



Las manifestaciones del hecho ilustrado en Bergara

Koldo Larrañaga. Ikerlan Saila. (1991). 4. alea. 212 orrialde. 2.000 pta. Gaztelerez.

Bergarak, XVIII. mendean bertako eta kanpoko zenbait zaldunen eraginez bizi izan zuen abentura espiritual (modernitate ilustratuarena hain zuzen) deskribatzen du. Liburua bi zatitan

banatu da: alde batetik, Bergara, kontrarreforma eta barroko garaian; eta bestetik, Bergarako ingurunea Argien mendean.

Atal honetan, Bergarako Seminarioaren hastapenak, antolaketa, funtzionamendua eta bilakaera ageri da.

Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran

Jose Maria Garmendia. Ikerlan Saila (1992). 5. alea. 80 orrialde. 2.000 pta. Euskaraz.

Antzinako Erregimenetik gaur egungo gizarte kapitalistarako bidean, Bergarak izan duen bilakaera politiko-ideologikoa aztertuko da. Karlisak eta liberalak, nazionalismoa eta sozialismoa, ideologia berrien sorrera, Bergarako bizitza politiko eta sozialaren "moderni-

zazioa", 1910-1930 urteen bitartean eta errepublikako zabaltze demokratikoa aztertu dira.



Bergarako biztanlegoaren historia

R. Arturto Ortega. Ikerlan saila (1996). 6. alea. 92 orrialde. 2.000 pta. Euskaraz.

Industrializazioaren aurrean zegoen hiribarneko eta nekazal aldeko biztanlegoaren historia aztertu da. Horretarako, hazkunde demografikoaren erritmoak, ezkontza sistema, heriotza eta Bergara industrialia sakondu dira.



Luis Abajo KULTUR ZINEGOTZIA

"Estatuko eta Europako historiagile askok Bergarako historian arreta jarri du"

Bergarari buruzko liburu monografikoez, historian zehar, herriak izan duen garrantzia argitzen dute. Orain dela 200 urte inguru egin ziren ikerketek oihartzun handia izan zuten bere garaian eta udalak honen berri ematea beharrezkoa dela pentsatu du. Kultura batzordeak, proiektua aurrera eramatea onartu zuenean, UNEDeko zuzendaritzarekin harremanetan ipini zen. Proiektuan lan egingo zuten idazle eta irakasleak aukeratu, eta ofizialki 1989an proiektua martxan jarri zen. Sortaren azken liburukia, aurten kaleratu denez, Durangoko Azoka aukera paregabea da monografia osoa eskuratzeko. Guztira, ikerlana 25 milioi inguru

kostatu da eta dagoeneko 400 sorta saldu dira gutxi gora behera. Azokan ezezik, Bergarako Kultur etxean eta Euskal Herriko hainbat liburutegitan aurkitu ditzakegu. Luis Abajo, kultur zinegotziak adierazi duenez, "ekonomikoki ez dut uste diru sarrerak izango direnik baina kultur mailan, herria aberastu eta sustatzeko interesgarria da. Aspalditik, Europa eta estatu mailako unibertsitate eta instituzioek, Bergarako historian arreta jarri dute. Lan honek interesa handituko duela

Bilbo, Durango eta Bergara izango dira Durangon postua jarriko duten Udalak

uste dut eta ondorioz, jendea Bergarara gerturatzeko aukera zabaldu daiteke".


Ikerlan Saileko Monografiez gain, Bergarako Udalak orain arte argitaratu dituen beste hainbat liburu ere erakutsiko dira Durangon. Horrez gain, Udal Musika Bandak danborradan eskaintzen dituen Bergarako eta herriko hainbat elkarteren ereserkiak biltzen dituen diskoa ere izango da salgai. Durangoko azoka San Agustinalde kalean izango da aurten eta guztira 114 taldek hartuko dute parte. Udallerrien ordezkaritza, Bilbo, Durango eta Bergarako Udalek izango dute. Bergara, 123. postuan izango da, HABE eta Bilboko Udalaren artean hain zuzen, eta liburutegiko langileak arduratuko dira liburuak saltzeaz. Standaren aurkezpen ofiziala, Bergarako alkateak, abenduaren zortzian, arratsaldeko seietan egingo du.

**Artea Bergaran.
Erdi eta moderno aroak**

**Maria Jose Aranburu
eta Jesus Gil.
Ikerlan Saila. (1991).
7. alea. 152 orrialde.
2.500 pta. Euskaraz.**

Mendez-mende bergararrek arte-ondare aberatsa eraiki dute. Hainbat obra, era sistematiko eta sakonean deskribatu, dokumentatu eta interpretatu dira azterlan honetan.

Garai ezberdinetako, arkitektura, eskultura, pintura eta zilargintza landuko dira, besteak beste, eta helburua berari hurbiltzea izango da.



**Estudio del medio físico
del término municipal
de Bergara**

**Jose Miguel Edeso.
Ikerlan Saila. (1991).
8. alea. 116 orrialde.
2.000 pta. Gaztelerez.**

Asmoa, Bergarako ingurune naturalaren azterketa egitea izan da. Geomorfologian, Bergarako kliman, 1953, 1983 eta 1988an izandako uholdeetan, bioklimatologian, landaretzan eta faunan zentratuz.

**Casa, familia y trabajo
en Bergara**

**M. Ibañez, A. Ortega,
A. Santana eta
M. Zabala.
Ikerlan saila (1994).
9. alea. 244 orrialde.
2.500 pta. Gaztelerez.**

Hiritarrek eta lantegi munduak jasandako bila-

kaera eta XIII. mendetik, XX. mendera arte, Bergarako herri xumearen historiaren ikuspegi orokorra ikertu dira orduko baserriek eta lantzen zituzten soroen azterketaren bidez ikertu da.



**Un crítico en las
Quimbambas.
Autobiografía y escritos**

**Justo Garate Arriola.
(1993). 318 orrialde.
1.000 pta. Gaztelerez.**

Justo Garate bergarar euskaltzalearen bizitza eta idazlanak ezagutzeko aukera paregabea. Jose Angel Ascunce eta Elias Amezagak, biografia eta artikuluen bilduma egin

dute.
**Historia de las cátedras
de química y mineralogía
de Bergara a finales
del siglo XVIII**

**Ines Pellon eta
Ramon Gago. (1994).
208 orrialde. 900 pta.
Gaztelerez.**

1953. urtean, Leandro Silvan-ek egindako lana abiapuntu gisa hartuta, Bergarako Errege Seminarioaren historia zientifikoa osatu dute autoreek. Aipamen berezia egin zaie Geronimo Mas zientzilariak, kimika, fisika eta mineralogia laborategietan egindako lanei.

Bergarako euskara

**Juan Martin Elexpuru
(1988). 372 orrialde.
3.000 pta. Euskaraz.**

Herriko euskararen hiztegitako eta idazteko



Aurten 228 liburu eta 48 disko berri aurkeztuko dira Durangon. Bergarako Udalak postu bat izango du.

EDURNE KOCH

arauak aztertu dira beste gai batzuen artean. Deklinabidea, aditza, despektiboak, Osintxuko fonetika, berezitasun fonetikoak, botanka, esakerak eta esaera zaharrak, kantak eta berba-jolasak, eskuizkribuak...

Bergarako Gida turistikoa

(1990). 18 orrialde. 500 pta. Euskaraz, gaztelera, katalana, frantsesez eta Ingelese.

Bergarako artea eta historia ezagutzeko, gune historikoan egin daitekeen ibilaldia eta udalerrira bera ezagutzeko liburuska.



Inventario del fondo del Real Seminario de Bergara

Eli Bergara. (1994). 320 orrialde. 2.000 pta. Gaztelerez.

Bergarako Errege Seminarioko artxibategiaren antolokuntzan eta deskribapenean burututako lanen azken ondorioa. Helburua, Fondoaren berri ematea eta kontsultarako baliagarri izango den baliabide bat aurkeztea izan da.

Nafarroako euskararen egoera demolingüistikoa eta funtzionala

R. Ramos Alfaro. (1995). 216 orrialde. 1.300 pta. Euskaraz.

Bergarako Udalak plazaratutako Justo Garate Arriola Bekari esker,

1993an Nafarroako egoera soziolingüistikoari buruz egindako ikarketa lana da. Nafarroako euskeraren egoera, bi ikuspegi desberdinetatik aztertu da. Lanaren lehenbiziko zatia, Nafarroan ukipenean dauden hizkuntzen eta biztanlegoaren arteko erlazioez mintzatuko da. Bigarren zatian, berriz, egoera funtzionala eta euskarak gizartearen duen estatusa aztertzen dira.

Bergara. Kale-izendegia. Callejero

(1982). 94 orrialde 600 pta. Euskaraz eta gaztelerez.

1980.ean Udalak bultzatu zuen herri batzorde baten irizpideei jarraituz egindako kale-izendegia. Asmoa, lehengo kaleen izenak birmoldatzea, ortografia zuzentzea eta

gaurkotzea eta toki berriei zegozkien izenak jarritzea izan zen. Ondoren, kale-izendegia Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz aldatu egin da.




Bergarako artea. Gida turistikoa

1996. 9 orr. 200 pta. Euskaraz.

Monumentuen kokapena, auzoen aberastasuna eta ibilaldi turistikoe buruzko informazio konpletoa.

Euskal kulturaren topagune

1965. urteko azaroan, Durangoko Gerediaga Elkateak, Durangoko Udalaren eta lau Foru Aldundien laguntzaz, euskal argitalpenak bilduko zituen azoka antolatu zuen lehen aldiz. Garai hartan, Andramari eliza bihurtu zen euskal kulturaren aterpe 1974. urtera arte. Harrez gero, Azoka plazan izan da eta aurten, aurkeztuko diren taldeen kopurua handitu denez, San Agustinalde kalean jarriko da azoka. Azokaren lehen edizioan, 18 argitaletxek hartu zuten parte eta 396 liburu gaztelerez eta 281 euskaraz, aurkeztu ziren. Gaztelerez idatzitako liburuak, baldintza bat bete behar izaten dute; euskal kulturaren inguruan idatzitako lanak izan behar dira. Guztira 198 postu eta 114 taldek hartuko dute parte. Gero eta jende gehiago inguratzen da azokan aurkezten diren lanak usnatzera eta saldu ere, gehiago egiten da. Aurten, 15.133 liburu eta 1.144 disko erakutsiko dira, hauen artean 228 liburu eta 48 disko berri. Bestalde, aldizkari berriak, egutegiak, ordenadorentzako materiala... aurkituko dugu.




Aurten kokalekua aldatu egingo du feriak. San Agustinalden jarriko da.

Bergarako ereserkia eta elkarten martxak

Bergarako Udal Musika Banda. Zuzendaria, Alfredo Gonzalez Chirlaque. Kaseta: 1.000 pta. Konpaktoa: 1.500pta.

Bergarako Udaleko Kultura Batzordeak, herriko elkarten laguntzaz eta Udal Musika Bandaren laguntzaz, egindako Elkartetako Musika Martxen bilduma da. Guztira hamahiru abesti ditu; San Martin Agirreren ereserkia, Bergarako ereserkia, Or-Konpon, Umore-Ona, Pol-Pol...

Kirol arloan, euskarazko materiala gehiagotzeko asmoz, urtero beka bat kaleratzen da. Ondorengo liburuak, horri ezker egindako lanen emaitzak dira.



Futbol entrenatzailea

C. Bourrel eta M. Seno. (1995). 228 orrialde. 1.500 pta. Euskaraz.

Kirol entrenamenduari buruzko oinarri-oinarrizko elementuak agertzen dira. Helburu nagusia, kirol munduarekin zerikusia duen edonork jakin beharrekoak ezagutzera ematea da.

Liburuak bi zati ditu: alde batetik, kirol entrenamenduaren oinarri orokorrak eta, bestetik, entrenamendu prosezaren ereduak.

Kirol entrenamenduaren oinarriak

I. Oiazabal eta A. Zinkunegi. (1995). 192 orrialde. 1.500 pta. Euskaraz.

L'entraîneur de football izeneko liburuaren itzulpena. Futbol munduak dituen atal ezberdinak aztertzen dira. Hauen artean: prestakuntza fisikoa, entrenatzailearen jarduera psikologikoa, atezainen entrenamenduaren arazoa, teknikak lantzeko bideak...



Entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak

Alfredo Cobo eta Aitor Lasa. (1996). 130 fitxa. Euskaraz.



Ikastetxeetan, entrenamenduetan zein astialdiko edozein jarduretan erabiltzeko material praktikoa. Batez ere, haur eta gaztetxoekin lan egin behar dutenei begira prestatutako materiala da. Fitxak, lau multzo nagusitan banatzen dira: rugbia, eskubaloia, saskibaloia eta beroketa.

Josune Lizarralde

ETXEPARE-BILINTX LIBUDUDENDAKOA

Zein da liburuak saltzeko sasoirik onena?

Gabonak. Liburuak opari polita eta erreza delako erosten du jendeak.

Durangoko Azoka dela eta, jendeak liburu gehiago edo gutxiago erosten ditu?


Aurkezten diren liburuak, azoka

amaitzean ere saltzen dira. Jendeak han begiratzen ditu eta batzuk, bertan erosi arren, ondoren ere interesa mantentzen dute. Aurkezten diren liburu eta disko berriak, azoka amaitzeaz bat, dendan izaten ditugu.

Durangoko azoka ekitaldi garrantzitsua da liburuaren salmenta bultzatzeko.

Liburu berriak ikustera joaten zarete?

Bai. Ikustera eta lanera ere joaten gara. Igandean esaterako, Zabaltzen eta Elkar argitaletxeen stand-etan egongo gara.



Industria hornikuntzak **UNIFE** Industriaren alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 76 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Zein iritzi daukazu euskal presoak Euskal Herriratzeari buruz?



Dolores Agirreurreta

Ondo. Familiakoek diru asko gastatu behar dute eta barruan daudenak hona ekartzea izango zen onena. Eta libratu.



Juan Cruz Makazaga

Hori legezkoa da, hemen egon beharko liriateke eta orduan ez dakit zein traba dagoen, ez dakit zergatik ez duten hori egiten.



Edurne Manzisidor

Oso ondo, hemen egon beharko liriateke danak. Urreratzea guztiontzat ona izango da, bai beraientzat eta bai guztioentzat ere bai.



Asier Muñoz

Ondo pentsatzen zait, familiak eta hemen baldin badituzte hemen egon beharko liriateke.



Ainhoa Arbelaitz

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea da egokiena, nire iritzia hori da. Kontutan edukita hain urrun daudela eta senideek dauzkaten eragozpenak...



Carlos Bengoa.

Oso ondo iruditzen zait, hemengoak dira eta lojikoak da hemen egotea. Ados nago hona ekartzearekin.

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Kabia

TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.

Karta (2.000-3.500 pzt. artean).

Okela eta arraina parilan (enkarguz).

Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08



Gabonak

Gabonak bertan ditugula euskaldunok, jai, opariak eta senitartekoen bazkari eta afariez aparte badugula zertaz pentsatu. Eta baita benetan erreflexionatu ere. Bai alajaina.

Milaka argi piztuko ditugu eta baita ehundaka kantu abestu ere. Gurekin direnak omenduko ditugu eta baita kanpoan direnen eskutitzekin biziki poztuko ere. Bazkaldu edo afaldu; lagunartean ibili; aspaldiko ezagunak agurtu eta, haserre guztien gainetik, txarrien arteko txarrintxei ere Gabon zorionsuak desiratuko dizkiegu.


Horrelakoak eta ez bestelakoak dira gure Gabonak. Maitasun eta zinismoz osaturiko jaiak. Melankoliaz eta merkantilismoz beterikoak. Kristautentzako eduki bereziko ospakizuna, besteentzako kutsu oso bereziko egunak eta negoziozaleentzat, feria egunak.

Horiek dira, eta ez besterik, gure Gabonak.

Hala eta guztiz ere, hipokresia eta guzti, Gabonak biziki maite ditudala aitortu beharra daukat. Senitartean, lagun artean, ezagunen artean, giro ederrean egotea zinez maite dudalako, eta baita etxeko txikienak Olentzero edota Hiru Erregeen kontuarekin engainatzea ere.

Dena dela, eta hainbeste maite dudana "Hator hator" Gabon kanta tristea bezain ederra entzuterakoan, negar malkoak izkutatu beharko ditut. Penak sortutakoak, gure hainbeste lagun gure herritik kanpo legez kanpo bahiturik dituztelako, batzuk gero eta gehiago maite duten Espainia horretan zehar legez kanpo preso, bahiturik, eta amorru malkoak ere, aipaturiko horiek bertan egon ez daitezen ezertxo ere egiten ez dutelako. Lotsarik gabe.

Martin GARITANO



Se sienten coño!

Tejero kalean da, 23 F-ko protagonista. Estatu kolpea ematen saiatu zen pikoletobiboteduna askatu dute, demokrazia edo gobernatzeko ustezko sistema demokratiko hau pikutara bidali nahi izan zuen tipo bera.

Egia esan, ia kalean, aspaldian zegoen. Izan ere, oso oker ez banago uste dut azkenaldian kartzelara bakarrik lotara joaten zela. Eta azkenaldian baino gehiagotan irten izan da kartzelatik, esate batera bere semeetariko bat apaiz ordenatu zenean, bere lehen mezan aurrez aurre eta txintxo txintxo izan zuen aitaxo kolpista. Baina, ez hori bakarrik. Azken urteetako Gabonak guardia zibil ohiak konpañia onean pasa diutelakoan nago, familian, ohiturari eutsiz; jakina, familia osoari ezin kartzelan harrerarik egin, eta bera joan behar etxera. Eta berdin irten izan da agineko minez edo katarroaz egon denean, batere problema barik.

Esker onekoa dugu demokrazia hau, bera pikutara bidaltzen saiatu zenari barkamena eskaintzen dakiena. Ah! baina tranposoa ere bada: seguru euskal presoek ez diela demokraziak Gabonak etxekoekin pasatzeko aukerarik emango, ezta anairen bat edo arrebaren bat ezkontzen bazaie ospakizunetara joateko baimenik, eta gutxiago agineko minez badaude dentistarengana... gertuko baten heriotzean ere ez diete etortzen uzten! Tejerok, nonbait, hasiera hasieratik hartu zion ustel usaina demokrazia honi.

Asako urtea bukatu baino lehen aurrez aurre ez dut aukerarik izango, horregatik gorantziak euskal preso guztiei eta bereziki Patxi eta Pollerori.

Beñardo KORTABARRIA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea


Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

■ Pertxa nagusi

Pertxa elkarteak irabazi zuen zapatu gauean **Santa Ana elkarte**an jokaturako elkartearen arteko karta txapelketako finala.

Finalerdietan Pertxak 3 eta 0 irabazi zion Gorkari eta Artatse 2 eta 1eko emaitzarekin nagusitu zitzaion Goxo-Peri. Finalean, esan bezala, Pertxak lortu zuen garaipena, 8 erregetako musean eta tutean irabazi ondoren; Artatsek 10 erregetako musean lortu zuen irabaztea. Pertxaren




aldetik **Agustin Lizarralde-Jose Ramon Lazkano** (10 erregetako musean), **Vidal Kareaga-Jesus Kalboetxeaga** (8 erregetako musean) eta **Felix Mujika-Benjamin Lazkano** bikoteek hartu zuten parte eta Artatsetik, berriz, **Agustin Albisua-Angel Agirrezaldegi** (10 erregetako musean), **Xefe Mondragon-Miguel Angel Arenaza** eta **Joakin Altuna-Luis Peña** (tute). Artatsekoek hainbat urtetan beraiekin jolastu eta aurten hildan **Felipe Oregi**ren alargunari eskeiniko diote lortutako trofeoak. Bestalde, 3. eta 4. postuetako partiduan Gorkak 2 eta 1 irabazi zion Goxo-Peri. Datorren urtean Pertxak izango du txapelketa antolatzekeo ardura



■ San Miguel-pe sortu zutenak

San Miguel-Pe elkartearen urrezko eztaien ospakizunak izan ziren astebukaeran. Eguakitzean gatzainerre jaia izan zen eta zapatuan ere jai-giroa izan zen nagusi: goizeko 9etako dianaren ondoren, etxaflero jaurtiketa egin eta 11etan San Migelera joan ziren. Jarraian, Aritzeta lagundutako meza ospatu zen San Migelen eta eguerdiko ordubatean bizirik dirauten bazkide sortzaileei omenaldia eskeini zitzairen elkartearen atarian. Xamatzekeo dantzariak **Andres Agirre, Conrado Inza, Bonifacio Iraegi eta Donato Ormazabal**en omenezko aureskua dantzatu zuten. Ondorengo bazkarian 70 lagun inguru bildu ziren San Miguel-Pen eta bazkalosteko tute eta mus txapelketan **Iñaki Zabala-Angel Salillas** (tutean) eta **Julen Arana-Jaime Ganuza** bikoteak izan ziren irabazleak.

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

■ **Zilarrezko eta urrezko eztaiak**




Joxu Lazkano eta Maria Jesus Epeldek, zilarrezko eztaiak, eta Miguel Epelde eta Sabina Gauba osintxuarrak (Maria Jesusen gurasoak), urrezko eztaiak, ospatu zituzten joan zen domekan. Bi bikoteak Osintxuko parrokian ezkondu

ziren eta domekan, ezkondu zirela 25 eta 50 urte betetzen zituztela eta, bazkaria izan zuten familiartekoekin Azpeitxi jatetxean. Aurretik, San Pedron meza izan zuten. Zorionak bi bikoteei.

■ **Arantxa Kortazarri despedida**

San Martin ikastetxeko lagunek, despedida-afaria eskeini zioten **Arantxa Kortazar** ikastetxeko sukaldariari. Arantxak 27 urte inguru eman ditu sukaldari



lanetan eta orain jubilatzeko ordua heldu zaio. Eguakitzean, esan bezala, bere lankideen agurra jaso zuen. 26 lagun bildu ziren Sirimiri jatetxean egindako afarian eta Arantxari erloju bat eta lora sorta eder bat oparitu zioten. Giroa primerakoa izan zen eta kantuak eta dantzak ere ez ziren falta izan. Duda barik, guztiek faltan botako dute Arantxa hemendik aurrera...

Zertan dihardute ba?



Eneritz Muguruza

Bergarako Igeri Elkarteko 13 urteko igerilariak brontzezko domina lortu zuen zapatuan Oñatin jokaturako Gipuzkoako Igerilaririk Konpletoenaren Txapelketan, infantil mailan. Partaide guztiek (100etik gora kategoria ezberdinetan) estilo guztietan (krol, bizkar estiloa, tximeleta eta bular estiloa) 100 m.ko distantzia bete behar izan zuten. Eneritzekin batera, Bergarako Igeri Elkartea ordezkatzuz, Antxon Maiztegi, Eli Alberdi, Amaia Lazpiur, Eider Balzategi eta Agurtzane Crespok hartu zuten parte txapelketan.



HAIZETEL
Telefonia mobila

Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Elsa Rodriguez

Elsa Rodriguez Jakina, sukaldeko altzarien dendako arduraduna eta, era berean, Bedelkar herriko dendarien elkarteko presidentea dugu. Superficie haundien aurrean komertzio txikien garrantzia azpimarratzen du Elsak behin eta berri.

- **Bedelkarren gauzarik onena?**
- Dendariak biltzea lortu duela.
- **Eta txarrena?**
- Eskatzen duen lana eta esfortzua, gauzak ez direlako batera errezak.
- **Dendarik gustokoenak?**
- Antzinako gauzenak beharbada, baina ondo aurkeztutako guztiak.
- **Zer falta zaio Bergarari?**
- Komertzio mailan ezer ez, denetik daukagulako.
- **Eta bestela?**
- Argiteria hobea, aparkalekuak, zerbitzu publikoak...
- **Erosketak non egiten dituzu?**
- Bergaran.
- **Nolako sukaldea etxean?**
- Bitrozeranikoa daukat.
- **Ondoen gertatzen duzun platera?**
- Arrain zopa.
- **Etxeko txokorik gustokoenak?**
- Saloia.
- **Mania bat.**



“Bedelkarrek herriko dendariak biltzea lortu du. Bergarari argiteria hobea, aparkalekuak eta zerbitzu publikoak falta zaizkio. Rosa Diezi ikatza ekarriko nioke Gabonetan, komertzio txikiaren alde gauza gutxi egiten duelako”

- Asko. Garbitasuna eta ondo egindako gauzak adibidez.
- **Animalia bat.**
- Zaldia.
- **Dutxa ala bainua?**
- Dutxa, ez daukat pazientziarik bainua hartzeko.
- **Perfumerik erabiltzen duzu?**
- Bai, suabeak gustatzen zaizkit.
- **Zenbatero joaten zara ileapaindegira?**
- Bizpahiru hilabetero.
- **Zapata lauak ala takoidunak?**
- Lauak.
- **Makilatzen zara?**
- Oso gutxi.
- **Kolore bat?**
- Urdina.
- **Jantzi bat?**
- Prakak.
- **Filmerik gustokoenak?**
- Gigante.
- **Aktore bat?**
- Charlton Heston.
- **Pertsonaia historiko bat.**
- Jesukristo.
- **Irakurritako azken liburua?**
- El Quijote irakurtzen ari naiz.
- **Zenbat erretzen duzu?**
- Pakete bat egunero.
- **Lagatzeko asmorik?**
- Ezin...
- **Gabonak atsegin zaizkizu?**
- Bai eta ez.
- **Turroi gogorra ala biguna?**
- Gogorra.
- **Nori ekarriko zenioke ikatza?**
- Rosa Diezi, komertzio txikiari kaso gutxi egiten diolako.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta,



sudadera edota
nikietan inprimitzen
ditugu, zuri-beltzean
zein koloretan.
Fotokopiak koloretan.
Futbol, saskibalo
edota ziklismoko kamisetetan
letrak, zenbakiak edo dibujoak
jartzen ditugu. Publizitate
artikuluak: boligrafoak,
metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Angiozar, 37

☎ 76 27 82



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 52 90.

Pisua salgai Frontoian.
160 m2. Banatzeko auke-
ra, 28 milioi. ☎ 76 24 42.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ (945) 24 83 96.

Bi oheko logela berria
salgai. ☎ 76 51 78.

Kontsultarako lokala alo-
kairuan. ☎ 76 07 84.

Gela bat salgai.
☎ 78 25 85.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 70 82 90.

Garajea salgai San Lo-
rentzon. ☎ 76 58 28.

Pisua alokatuko genuke
Bergaran. Urjentea.
☎ 78 26 52 (Arantzazu).

Garajea saldu edo alokai-
ruan jarriko nuke Burdiña-
ten. ☎ 76 40 03.

Kontsultarako gelak
alokairuan jartzen ditut Koldo
Eleizalden, Bolun.
☎ 76 58 91.

Logela bat alokatuko nu-
ke. ☎ 76 03 53.

Pisua salgai Arrizurin.
Garajea. ☎ 76 55 28.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 44 89.

Osintxun buhardilla sal-
gai. ☎ 76 15 36.

DENETARIK

Peugeot 505 kotxea (SS-
S) salgai. ☎ 76 30 01.

Taberna alokairuan herri
erdian. ☎ 907 45 57 22.

Kerosenozko estufa sal-
gai egoera eta prezio one-
an. ☎ 76 21 71 (Amaia).

Fiat Tempra 1.400 SX
kotxea (SS-AL) salgai.
☎ 77 06 48 (iñaki).

Pultsera bat agertu da,
Jose Ramon 14-3-55 ins-
kripzioarekin. Udaltzaingoa.

Opel Astra kotxea (SS-
AN) salgai. Egoera onean.
☎ 76 48 47.

Gasteizera joan-etorria
(8-17.00) egiteko kotxea
behar dut. ☎ 76 15 76.

Taberna traspasatzen da
Antzuolan. ☎ 76 01 95.

Montesa Cota 348 Trial
motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Negutegia salgai. 2.000
m2. ☎ 17 51 05.

2. eskuko motorra erosiko
nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Irrati kontroleko abioia
salgai. ☎ 76 51 94.

Kotxe teledirijitua salgai.
☎ 76 04 63.

Pultsera bat agertu zen
barikuan haur liburutegian.
☎ 77 91 62.

Taxi plaza eskualdatuko
nuke. ☎ 76 44 04.

LANA

OHO klaseak ematen ditut.
☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

Neska batek etxeko lanak
egin edo haurrak zainduko
lituzke. ☎ 76 64 60.

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak
ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut
(orduka). ☎ 76 48 39.

Haurrak edo helduak
zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

Ingeles Filolojian lizen-
tziatua, klaseak emango
nituzke. ☎ 76 41 31.

Neska frantses batek
frantseseko klaseak ematen
ditu. ☎ 76 27 16.

Majisteritzan diploma-
tutako neska batek haurrak
zaindu edo klaseak emango
lituzke. ☎ 76 48 53.

Haurrak zaindu edo etxe-
ko lanak egingo nituzke.
☎ 76 31 96.

Lizentziatuak BBB eta
UBI klaseak ematen ditu
Bolun. ☎ 76 70 40.

48 urteko emakume eus-
kaldunak haurrak zaindu
edo etxeko lanak egingo
lituzke. ☎ 76 70 24.j



Azaroak 7, larunbata
AFARI BIKAINA

Prezioa: 3.500 pta.
Tokia hartzeko: 76 35 51.

Afalostean, dantza saioa
izango da, zuzeneko
orquestra eta guzti.

Tartufo Jabetzea

MENUA:

- Entremes bero eta hotzak.
- Kabratxo pudina.
- Ahate foiea.
- Kazolatxo eta frito bariatuak.
- Rapéa parrilan.
- Rostbeeg-a txanpinoi saltsarekin.
- Etxeko gozoak.
- Kafea eta kopa (patxarana, koñaka, JB...).
- Txanpan kopa.

LAGUNTZAILEAK: Ari-an Bodegak (Lugarri beltza, Castillo de Hojeda gorria, Codorniu kaba.

■ WONDER BRASS, METAL BOSKOTEA

“Herriko bost gaztek osatutako metal boskotea izan nahi du Wonder Brassek”

Miguel Angel Maniegak (tronpeta), Aritz Kortabarriak (tronpeta), Jose Migel Etxebarriak (trona), Mikel Markiegik (tronboia) eta Martin Zaitegik (tuba) osatzen dute Wonder Brass taldea. Metal boskoteari, Oihan Vega (perkusioa) gehitzen zaio kanpoko emanaldietan. Orain dela urtebete osatu zuten taldea eta dagoeneko sei bat kontzertu eskaini dituzte. Gazteak dira (15 eta 18 urte artean), baina ilusioa ez zaie falta.

“Zuzenean eman ditugun kontzertuetan ateratako diru apurra, partiturak erosten eta kalean kartelak jartzten joan zaigu”.



- Wonder Brass taldearekin, Musika Eskolatik kalera irten nahi izan duzue?

- Bai, asmo horrekin sortu genuen taldea, Musika Eskolako eta Udala Musika Bandako ohizko lanez gain, metalezko musika zuzenean eskaintzeko asmoarekin. Iazko irailean hasi ginen. Alfredo Gonzalez Chirlaquek animatu gintuen hasieran, instrumentuei eskua hartu eta piskanaka piskanaka maila hobetzen joateko.

- Izena nori bururatu zitzaion?

- Miguel Angelek asmatu zuen, iaz Chulillara Orkestrarekin egindako bidaian, autobusean gindoazela. Berehala konturatu daitekeen moduan, hitz joku bat da. Esan behar da, Brass atzizkia metal boskoteak izendatzeko erabiltzen dela normalean: Canarian Brass,

Mondragon Brass... Gu, berriz, Wonder Brass gara (metal liluragarriak).

- Errepertorioa nola aukeratzen duzue?

- Normalean, metal boskoteentzako partiturak barroko musikakoak izaten dira eta jendaurrean, kalean batez ere, joteko astun samarrak dira, hobe da abesti ezagunak jotea. Bestalde, jazz eta bluesa gustoko dugu eta errepertorioan estilo horietako piezak ere jotzen ditugu, baita Beatlesen abestiren bat edo beste. Partiturak aurkitzea ez da erreza, katalogoetan-eta izaten dira baina kanpora eskatu behar dira. Dena dago, aurrera begira abestiak geuk sortzea izango litzateke erronka.

- Taldearekin aurrera egiteko asmorik?

- Une honetan, ahalik

eta kontzertu gehien eman eta instrumentoak dominatzen ikastea da gure asmoa, herriko tabernetan jo... Gerora begira, hemendik diru pisikat atera badezagugu, hobe. Orain arte, zuzenean eman ditugun kontzertuetan atera dugun diru apurra, partiturak erosten eta kalean kartelak jartzten joan zaigu...

- Musika Eskolaren inguruan piskanaka talde batzuk sortu dira.

- Beno, hor daude Old Boys Quintet, Soka taldea, Aitzol Mujika, gu geu... Ez dira hainbeste. Musika Eskolan ikasle asko dago, baina beste hainbat saltsatan sartuta dago jendea: futbola, partikularrak... Askok, musika klasetara joatearekin nahikoa daukate. Ikasketak eta musika ondo eroatea

ez da erraza.

- Zuen adineko jendeari metalezko musika zaila egingo zaio...

- Bai, esate baterako, Old Boys Quintet taldeak jazz egiten du eta gazte jendeak gehien entzuten duen musika ez izan arren, askoz ere zabalduago dago jazz gazteen artean. Telebistan-eta, jazz taldeak askoz ere gehiago agertzen dira.

- Zuenak al dira instrumentoak?

- Ez, oso garestiak dira. Tuba bat milioi bat inguru kostatzen da... Musika Eskolakoak dira instrumentoak eta entsaiuak ere bertan egiten ditugu. Hala ere, Musika Eskolako metal boskotea ez dugu izan nahi, Wonder Brass metal boskotea baizik, herriko bost gaztek osatzen duten taldea.

1	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A ZE FLAXA ETXAGI	21	7	35	8
2.	ERROTAGAIN	16	7	21	10
3.	JAUJA OH ZEREZOS	14	7	28	19
4.	BAR CANALEJAS	13	6	22	16
5.	BILDURBAREK OPEL/LAM	13	7	28	24
6.	OGIZUN	9	6	18	23
7.	ARLOTEAK OILAGORRA	7	6	24	17
8.	MADURA INDUSTRIAS GOL	7	7	12	15
9.	AZPEITXI JATETXEA	6	6	22	19
10.	MONGATXURRA	6	6	19	24
11.	UFALA	5	7	20	30
12.	ORTZI	4	6	7	14
13.	PAGOMENDI	0	7	8	37

2	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ETXAGI	15	6	23	17
2.	KAYAK OS JARDINEIROS	15	7	31	14
3.	ARTUSAMAK BERGATRANS	15	7	30	18
4.	UVE BIKOITZA JAM	13	6	15	17
5.	LA JUVE	10	7	18	14
6.	AGIRREBEÑA JATETXEA	9	6	17	15
7.	SOROPOTROAK	9	6	19	16
8.	EZINLEIKE	8	6	15	15
9.	HALTZARI	8	7	21	20
10.	AGIÑASPI	7	7	14	28
11.	ERI	6	4	14	18
12.	INDARGORRI	4	5	3	10
13.	AUTOBEREZI	0	6	11	27

3	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	GUADALEST	18	8	29	17
2.	PJS	17	8	27	17
3.	MOSKIS	16	7	31	16
4.	TXIPIRON	14	7	22	14
5.	FAC	13	7	22	17
6.	JAKINA PATXARAN TEAM	13	8	26	31
7.	NEKROFLIKOS	12	6	22	12
8.	IGANDEKOAK	9	7	18	25
9.	NAHIKARI HOOLIGANS	9	7	25	26
10.	EH BITERRAK	7	7	13	23
11.	MRW	4	7	14	22
12.	ARI ARI	1	6	9	25
13.	CONSTRUCCIONES BERGARA	1	7	13	30

4	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITOU	24	8	55	10
2.	ARBE KIROLAK	21	8	52	22
3.	ETENGABE	18	8	32	14
4.	OSINTXU	16	8	27	20
5.	MATXAKATEGI	13	8	18	13
6.	SLO	10	8	25	33
7.	PANORAMIX	9	7	23	31
8.	KOMANDO PIPERRAK	9	8	19	24
9.	XURRUPAK	9	8	16	28
10.	AMILOTX	8	8	15	25
11.	PITTIXAK	7	7	20	21
12.	ALDOKA MALDOKA	5	7	17	30
13.	POLIDEPORTIVO TABERNA	4	8	12	40
14.	PATA NEGRA	3	7	13	45

Jokoz kanpo



Gorka Gonzalez

PATXARAN TEAM

ZER MODUZ ZOAZTE TXAPELKETAN?

Ondo hasi ginen, baina azkenengo partiduetan kaskar samar gabiltza.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, gure artean ondo konpontzen garela eta txarrena, gazkarri ondo ez doazenean, aukarregi haserretzen garela.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

JOKALARIRIK ONENA?

Aitor Anton.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

9 eta 1 Osintxuri.

ETA JASOTAKOAK?

11 eta 0 Iganekoak-en kontra.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Igotzeko fasea jokatzea espero dugu.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Miguel Indurain.

EUSKAL HERRIKOAK?

Javier De Pedro.

JATEKO PLATER BAT?

Makarroiak.

EMAITZAK

ARI ARI-TXIPIRON	3-3
EH BITERRAK-MRW	1-3
IGANDEKOAK-GUADALEST	1-2
PATXARAN TEAM-NEKROFLIKOS	3-6
NAHIKARI HOOLIGANS-PJS	3-5
CONSTRUCCIONES BERGARA-MOSKIS	3-3
OSINTXU-MANITOU	1-6
KOMANDO PIPERRAK-ETENGABE	1-2
ARBE KIROLAK-AMILOTX	8-1
SLO-XURRUPAK	1-3
POLIDEPORTIVO TABERNA-MATXAKATEGI	0-4

PARTIDUAK

Eguakitzean barruan

09:00:	TXIPIRON-FAC • HALTZARI
10:00:	HALTZARI-ETXAGI • KAYAK OS JARDINEIROS
11:00:	KAYAK OS JARDINEIROS-LA JUVE • EZINLEIKE
12:00:	EZINLEIKE-INDARGORRI • NEKROFLIKOS
13:00:	NAHIKARI HOOLIGANS-NEKROFLIKOS • INDARGORRI
16:00:	JAUJA OH ZEREZOS-PAGOMENDI • ARLOTEAK
17:00:	ARLOTEAK/OILAGORRA-AZPEITXI • BILDURBAREK
18:00:	BILDURBAREK OPEL/LAM-ERROTAGAIN • AZPEITXI
19:00:	PITTIXAK-ALDOKA MALDOKA • PATA NEGRA
20:00:	PANORAMIX-PATA NEGRA • PITTIXAK

Zapatuan barruan

09:00:	MATXAKATEGI-AMILOTX • SLO
10:00:	SLO-MANITOU • PITTIXAK
11:00:	PITTIXAK-ETENGABE • KOMANDO PIPERRAK
12:00:	OSINTXU-KOMANDO PIPERRAK • ALDOKA MALDOKA
13:00:	ARBE KIROLAK-ALDOKA MALDOKA • OSINTXU

Domekan barruan

09:00:	TXIPIRON-NEKROFLIKOS • AUTOBEREZI
10:00:	AUTOBEREZI-AGIRREBEÑA • UVE BIKOITZA JAM
11:00:	UVE BIKOITZA JAM-ERI • ARTUSAMAK
12:00:	EZINLEIKE-ARTUSAMAK BERGATRANS • INDARGORRI
13:00:	INDARGORRI-ETXAGI • EZINLEIKE
16:00:	SOROPOTROAK-AGIÑASPI • ORTZI
17:00:	ORTZI-MADURA INDUSTRIAS GOL • PAGOMENDI
18:00:	OGIZUN-PAGOMENDI • NAHIKARI HOOLIGANS
19:00:	NAHIKARI HOOLIGANS-GUADALEST • PATXARAN T
20:00:	PATXARAN TEAM-PJS • GUADALEST

Agur esan die denboraldi kaskarrari zirkuitoetako kotxe pilotu bergararrek

Zirkuitoetako kotxe gidariek igandean Xerez-en amaitu zuten aurten-go denboraldia. ZX kopan Pablo Irizar 5. geratu zen eta Martin Egaña, berriz, 6. postuan. Aurtengo denboraldiaren balantzea egiteko ordua heldu da eta Irizar ez dago oso pozik egindako lanarekin.

Izan ere 7. bukatu du eta behin bakarrik igo da podiumera Jaraman hain zuzen ere 3. izan zen. *“Urtea ez da oso ona izan, baina kontutuan izan behar da konpetentzia haundia dagoela. Aurrean dabilen gidari gehienak profesionalak dira eta gu entrenatzera lasterketa baino egun bat lehenago joaten gara eta eurak, berriz, astebete dute entrenatzeko”* esan digu Irizarrek.

Gaur egun La Torre da Irizarren esponsorra eta datorren urterako esponsor berberakin jarraitzeko asmoa du. *“Oraindik ez*




Martin Egañak eta Pablo Irizarrek ez dute denboraldi ona burutu.

dugu firmatu, baina espero dut beste urte batez zirkuitoetan jarraitzea”. Martin Egañarentzat, joan zen urtean Citroen AX kopa irabazi ondoren, aurtengo lehenengo urtea izan da Citroen ZX proban eta gustora dago egindako lanarekin. Xerezeko lasterketan 6. postuan amaitu zuen eta onenekin konparatuz ez

zuen denbora askorik galdu. Denboraldia amaituta, balantzea egiteko garaia da eta Egañak urte ona izan dela adierazi digu. *“Lehenengo urtea izateko gustora nago. 9. geratu naiz eta pozik nago. Beste gidari batzuekin konparatuta, medio gutxiago ditut eta oso zaila da aurrerago gertzea”*. Egaña hasi da da-

torren denboraldirako gauzak prestatzen eta lehenik eta behin La Torre esponsorrekin berba egingo du baldintzak hobetzeko. *“Urte bukaeran edo datorren urte hasieran hitz egingo dut La Torrerekin baldintzak hobetzeko. Behintzat beste gidariek dituzten baliabideak izatea espero dut. Hori lortzen badut datorren urtean 5 onenen artean gertzea gustatuko litzaidake. Gauzak hobetzen ez badira ez dakit jarraituko dudan”*.

Azkenik, Jose Antonio Egaña Xerez-en 22. geratu zen Citroen Saxo koparen barruan azkenengo postuetan irten ondoren. Izan ere, denboraldi osoan zehar izandako zorte txarrekin jarraituz, Egañak kotxearen kanbioen kutxa apurtu zuen eta nahikoa egin zuen, piskanaka-piskanaka postuak aurreratzen.



Josu Aranari omenaldia eskainiko dio bihar BKEk

Josu Arana BKEko preferente mailako jokalaria ohiak omenaldia jasoko du eguakitzean BKEk Arrasateren aurka 15:30etan jokatu duen partiduan. Aranak 14 urte inguru pasa ditu BKE-n jokatzen eta hori eskertzeko elkarteko zuzendaritzak eta jokalariek partidua baino lehen opari batzuk emango dizkiote. Izan ere, eguakitzean Aranak 27 urte beteko ditu eta arerioa Arrasate dela aprobetxatuz erabaki dute omenaldia bihar egitea. Hor ez dira bukatuko ospakizunak, gauen lagunarteko afaria izango baitute.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Arrasate**
Preferentea.
Eguakitza. 15:30. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Ordizia**
Ohorezko mailako jubenilak.
Eguakitza. 11:00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Zumaiako**
2. mailako jubenilak.
Domeka. 11:30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Amaikak Bat**
Lehen mailako infantilak.
Domeka. 10:00. Ipintza.

SASKIBALOIA

- ◆ **Bergara-Garbi**
Senior mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Santo Tomas Lizeoa**
Kadete neskek.
Zapatua. 12:15. Mariaren Lag.

PILOTA

- ◆ **Kluben arteko Txapelketa**
Bergara-Donostia. Banaka.
Eguakitza. 12:00.
Udal Pilotalekua.
Bergararik Igor Gutierrezek jokatu du.
- ◆ **Baqué Txapelketa**
Hilaren 15ean jokatu da txapelketako finala. Esan dezagun, kadete mailan, Muguruza bergararrak 19 eta 18 galdu zuela Elorzaren kontra.

Usune eta Iru- ne Gomez eskubaloitaldean

**Usune Beristain eta Iru-
ne Gomez eskubaloit-
jokalariak Eibarko Arrate talde jubenilean ari dira jokatzeko. Bi jokalariai aurten fitxatu dute Gipuzkoako talderik onenatarikoarekin eta orain arte jokatuak partiduekin oso gustorabiltza.**

- Ze postutan jokatzen duzue?

- Usune Beristain: Nik pibote postuan jokatzen dut.

- Iru-
ne Gomez: Lateral edo zentral postuetan jartzen naute.

- Zergatik aukeratu duzue eskubaloia?

- U. B: Zerbait egitearren hasi nintzen eta engantxatu egin nintzen.

- I. G: Ni berdin.

- Zer moduz Arraten?

- U. B: Ondo, maila altuagoa dago eta partidu gehiago irabazten ditugu.

- I. G: Horrez gain, gehiago ikasten dugu, entrenatzaileek esperientzia haundiagoa dute eta entrenamenduetan konpetentzia gehiago dago jokalarien artean.

**- Ze desberdintasun dago Arrate eta BKE-
ren artean?**

- U. B: Arratek senior taldeak ditu ohorezko mailetan bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan. Jokalariak herri ezberdinetatik hartzen dituzte eta horrela maila hobea dute.

- I. G: Arraten, aurrera begira aukera gehiago daude, senior mailako taldeak baitauzkate.

- Arbitroari protestatzen diozue?

- U. B: Ez, eskubaloian arbitroari zerbait esaten badiozu bi minuturako kalera zoaz eta isildu egin behar zara.

- I. G: Ni ere isilik egoten naiz, Bergaran istiluren bat edo beste izan genuen arren.

**- Definitu batak beste-
teari.**

- U. B: Iru-
ne askotan "en la babia" egoten da. Partidu oso onak edo oso txarrak egiten ditu. Ondo hasten bada partidu ona egingo du, baina gaizki hasten bada txarra.

- I. G: Usunek pibotean jokatzen du eta oso

zaila da egiten duen lana ikustea oso baloi gutxi pasatzen diogulako. Oso genio txarra du.

- Ze espero duzu eskubaloian lortzea?

- U. B: Ez dut jubenil mailatik pasatzea espero. Ez dut senior mailara heldu nahi, egunero entrenatu behar da eta horretaz gain ikasi edo lan egin behar duzu. Gainera, emakumezkoetan ez dute ordaintzen eta ezin da hortik bizi.

- I. G: Niri asko gustatuko litzaidake senior mailara heltzea. Ez dut uste helduko naizenik oso gogorra delako, baina saiatuko naiz.



Usune Beristain eta Iru-
ne Gomez, bi bergarar Arraten.

“Jokalarien artean konpetentzia gogorra dago Arrate taldean”



San Miguel-Pekoak Errioxan. 1971.

San Miguelpe elkarteak bere sorrerako urrezko eztaiak ospatu zituen joan zen astebukaeran eta, hori dela eta, elkarteko bazkideek 1971n Campoviejo bodegetara egindako irteerako argazkia ekarri dugu aste honetan.

Campoviejokoek gonbidatuta, han izan zen kuadrila haundi hau, bodegak ikusi eta bertan primerako bazkaria eginez. Aurretik hamaitakoa La puebla de Arganzonen egin zuten, 333 Km.an hain zuzen, primeran gogoratzen duten moduan. Ardo ona... eta jai-giro hobea.

Horra hor argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Goian, ezker aldean: Manuel Alberdi, Angel Balzategi, Jose Antonio Arrieta "Bizkai" eta Jesus Mari Larrea (bizarduna).

Goian, eskumaldean: Miguel Angel Irizar, Floren Ruiz de Egin, Eugenio Gabilondo eta Jaime Ganuza (goi-goian, betaurrekoekin).

Zutik: Jose Arietaleanizbeaskoa "Uritxa", *Campoviejo*ko ordezkaria, Jose Mari Aizkorrialde, *Campoviejo*, Eulogio Dacosta, Juan Marquez, Pako Iraegi, Peio Unamuno, Gonzalo Basauri, Bixente Agirrezabal, Jose Luis Garmendia, Agapito Larrañaga, Esteban Zaitegi, Iñaki Arregi, Angel Irizar, Jesus Zezeaga, Jose Mari Lazkano, Antonio Ibarra (atzean), Santi Arriaran, Jesus Okina, Paulino Martinez, Ricardo Zabaleta, Vicente Barrutia, Bonifacio Iraegi, Manuel Cid, Onesimo Marquez, Azkarate, Iñaki Elgero, Pako Agirre eta Iñaki Gallastegi.

Makurtuta: *Campoviejo*, Rafael Wangenever, Felix Iparragirre, Nikolas Arregi, Pedro Jauregi, Sicilio Irizar, Conrado Inza, Felix "Elorrixa", Santiago Etxeberria, Eduardo Urbina, Jesus Olabarria, Jesus Mari Arregi, Jose Mari Luarizaristi, *Campoviejo*ko 2 ordezkari, Martin Zabaleta, Luis Bikuña, Mateo Pildain eta Remigio Aranzabal.



*Ikatza ez da
Gabon hauetan
jaso dezakezun
oparirik txarrena.*

CRISTINA

Arruriaga, 44. ☎ 76 03 04. Bergara.

*Gabon hauetan ez ezazu imitaziorik onartu.
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*



BOLU Gimnasioa

Benetako txapeldunak prestatzen ditugu!!

Aranerrea 9, behea
☎ 76 51 20

- Squasha.
- Karatea.
- Mantenimendu gimnasia.
- Aerobik-Step.
- Muskulazioa.
- Makina kardiobaskularrak.
- Kirol masaia.
- Masaia terapeutikoa.
- Sauna.
- Hidromasaia bañera.
- Solariuma.



Espainiako Kyokushynkai karate Txapeldunak.

GIARTZU

Boni Laskurain, 3 ☎ 76 35 71

Zentro
Dermoeste

Aurten ez eduki zalantzarik. Izan praktikoa, erromantikoa..., eta EDERTASUNA ERREGALATU.

Opari bikoitza!!

GERMAINE DE CAPUCCINI

aurpegiko azal lehorrenentzat

**OPARITU
NAZAZU!!**



**EXCEL THERAPY
CARESSE SUBLIME**

CARESSE SUBLIME emulsioa erosteagatik, krema eta nezaser eksklusiboa oparituko dizkizugu.



GERMAINE DE CAPUCCINI
EDERTASUNA DAGOKION TOKIAN

GERMAINE DE CAPUCCINI
banatzaile eskus